


TRATU EZBERDINAK, DENA ONAK**4. Balioen termometroa³**

Balioak pertsonaren edo talde baten moral- eta etika-printzipioak dira, egoera batean balorazioak egiteko eta erabakiak hartzeko erabiltzen direnak.

Balio-sistema balio multzo koherentea da, kultura eta ideologia baten adierazgarria.

Jarduera hau egin baino lehen, komenigarria da  ariketa egitea, giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiten ohitura har dezaten.

HELBURUAK

- Entzute aktiboko aztura garatzea.
- Beste talde sozio-kulturaletakoei buruz ditugun pertzepzioak eta horien azpian dauden balioak ezagutzea.
- Jarrera diskriminatzaile arrazistak eta sexistak argitzea.
- Komunikazio-prozesuen bidez berregituraketa kognitiboa sustatzea.

GARAPENA

Hasteko, irakasleak ikasleekin adostu beharko du zein izango den BAI ordezkaturako duen gelako horma, eta zein EZ ordezkaturako duena.

Ikasleak gelaren erdian ipiniko dira eta irakasleak baliabideetan aurkituko dituen baieztapenak ozenki irakurriko ditu, banan-banan. Baieztapen bakoitzaren ondoren, txalo bat joko du eta tarte bat utziko du ikasleak lekuz aldatzeko: baieztapenarekin ados badaude, BAI aldera; eta kontra badaude, EZ aldera mugituko dira. Inor ezin da erdian geratu. Baieztapenarekin ez badaude erabat ados, alde horretara joko dute, baina ez erabat. Horrela, erditik dagoen distantziak adostasun-maila markatuko du, termometro baten antzera.

Behin ikasleek tokia hartu dutela, irakasleak galdetuko die zergatik egin duten alde edo kontra. Ikasleek adi entzungo dituzte ikaskideen argudioak eta horien arabera posizioa aldatzen joango dira. Bi aldeetako argudioak entzun behar dira, eta horiekin ados badaude, alde horretara mugituko dira, konbentzimendu-mailaren arabera.

Posizioa aldatu dutenei egokituko zaie azaltzea zergatik mugitu diren, zein izan den konbentzitu dituen argudioa.

Irakasleak ez du debatean jarrera pertsonalik hartuko; taldeko kideen iritzietan oinarrituta hausnarketa sustatzea da helburua. Beraz, ez ditu ikasleen erantzunak epaituko, baina horietan agertuko diren kontzeptu inplizituak definituko ditu, hala nola hauek:

³ Garaigordobil Landazabal, Maite: *Esku-hartze psikologikoa nerabeengan. Nortasunaren garapenerako eta giza eskubideen arloko hezkuntzarako programa* (moldatua). EHU, 2002.

Diskriminazioa: generoan, arrazan, jaiotza-lekuan, hizkuntza edo irizpide etniko, erlijioso, politiko, sexual edo ekonomikoetan oinarrituz gertatzen den bazterkeria da.

Heteropatriarkatua: Menderatze-sistema soziala da. Bertan gizon heterosexualak, gizonak eta heterosexualak izateagatik, emakumeekin alderatuta, pribilegioak dituzte.

Arrazismoa: Arraza baten besteekiko nagusitasuna baieztatzen duen jarrera eta pentsamoldea da.

Etnozentrismoa: norberaren gizataldea guztiaren zentrotzat eta eredutzat hartzeko joera da, beste gizatalde guztiak neurtzeko eta sailkatzeko.

Xenofobia: atzerritarrei edo portaera eta jatorri desberdina duten pertsoneri gorroto-, nazka- eta etsaitasun-sentimendua da.

Sexismoa: Ideologia, aurreiritzi edo estereotipoetan oinarrituta gizonak eta emakumeak modu bereizian tratatzeko diskriminaziozko jarrera eta jokabidea da. Gure gizarte heteropatriarkatuan, sexismoa emakumeen kontrako diskriminazioa da.

Irakasleak prozedura bera mantenduko du baieztapen guztiekin. Saioa bukatzeko, taldean eztabaida gidatuko du galdera hauen bitartez:

- Ikaskideek emandako argudioetan oinarrituta, aldatu al duzue zuen ikuspuntua? Kostatu al zaizue zuen ikuspuntua aldatzea?
- Zein esaldi izan da posizioa hartzeko zailena? Eta errazena?
- Zer aurreiritzi ditugu etorkinez? Zergatik?
- Zer egin dezakegu errealitateari buruz ditugun irudi oker horiek aldatzeko?
- Zer ekarpen egin dizu jarduera horrek?

DENBORA

Saio bat edo gehiago, esaldi-kopuruaren arabera.

BALIABIDEAK

- Eranskina: "Balioen termometroa"